

**EUSKOTARRAK EUROPAR BATASUNA BULTZATZEN,
DEMOKRATIKOAGOA,
GIZARTEKOAGOA ETA
ANIZTASUNAREKIN ETA INGURUMENAREKIN
BEGIRUNETSUAGOA
IZAN DADIN**

1957ko martxoaren 25ean, Europako Ekonomia Erkidegoa eratu zen, sei Estaturen ekimenez. rako eta askatasunerako proiektu gisa sortu zen, kontinentea suntsitu zuen Bigarren Mundu Gerra bukatzean.

Berrogeita hamar urtez lankidetzan, elkartasunean eta elkarrekin lanean jardun eta gero, kontinentea bidez bateratzeko utopia hura egia bikain bihurtu da: ia 500 milioi biztanle, 27 Estatu, 250 eskualde eta 23 hizkuntza ofizial —bai eta beste hainbat hizkuntza ere, hala nola euskara, oraindik ofizialtzat hartu ez direnak— biltzen dituen Europar Batasuna.

Europa bateratu hori eratzea lan konplexua eta liluragarria ari da izaten, nahiz eta zenbaitetan zailtasun eta oztopo handiak aurkitu diren, oraintxe adibidez. Orain-berriki Europar Batasunak aurrera eraman dituen hedatze azkarrek, dema ekonomiko eta politiko garrantzitsuak ekarri dituzte, tradizio demokratikoak eta Europa ulertzeko moduak ugaritu direla eta. Lortutako arrakasta, ordea, duda gabea da: XX. mendeko gerrek eragindako arrasto lazgarriak ezabatu dira, eta kontinentea berriz batu da. Bestalde, Frantziak eta Herbehereek Europako Konstituzioa onartu ez izanak krisialdian sartu du Europa. Krisi horrek, baina, eztabaida iradokigarri eta positiboa piztu du, Europaren etorkizunari eta mugei buruz. Lehenago gertatu bezala, hausnarketako aldi hau ere Europaren eraikitzeari emango zaion bultzada berri bategi bukaraziko du. Halaxe amaituko da herritarrek euren burua Europako proiektuarekin ez identifikatzeak eragindako krisia.

Egin berri den Europar Batasunaren zabaltze azkarrak, orobat, hainbat arazo ekarri du, erabakitako ekonomia parametroen egokitzapenari dagozkien arazoetatik hasi eta giza eskubideak betetzeari dagozkionetara.

Gure erreferentzia esparruen errotiko eraldakuntzako aroa bizitzen ari gara, gorantz datorren joera globalizatzaile berriaren eraginez. Dagoeneko, Estatuak ez dute gaitasunik mundu konplexu honetan sortzen diren arazo guztiei alde bakarretik aurre egiteko; halaber, ezin diote herritarren behar guztiei irtenbidea eman. Hori dela eta, Europar Batasuna da egonkortasun politikoa, ekonomia oparotasuna, finantza elkartasuna eta segurtasuna dakartzan erantzuna, globalizazioak eragindako kezka eta aztoramenaren aurrean.

Desadostasun zehatz batzuk eta geldialdi uneak gorabehera, Europar Batasuna taxutu da rako, askatasunerako eta gizarte justiziarako proiektu gisa, munduko esparru politikoetan alde askotako parte-hartzearen eta kultura arteko elkarrizketaren defendatzaile gisa, herrialde

ahulenekin elkarlanean aritzearen aldeko apustu egiten duen ongizaterako eta gizarte engaiamendurako gune gisa, eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan mundu osoko aitzindari gisa. Horregatik guztiagatik, lehentasuna eman behar zaio, Estatu kideen jardueretatik haratago, Europar Batasunak nazioarteko esparruan eragile global gisa protagonismo handiagoa hartzeari.

EUROBASKen nahi dugun Europak, ordea, ez ditu oinarri nagusi izan behar botere ekonomikoari edo militarri dagozkion irizpideak; kulturaren sakontzea, hezkuntza, balio demokratikoak eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala inspiratu zuten idealak hartu behar ditu abiaburu. Historiak erakutsi digunez, boterea nagusitasun edo menderatze harremanetan soilik oinarritu duten erakundeak edo egiturak desagertu egin dira, goiz edo berandu. Aitzitik, idealak eta balioak gizartearen barren-barreneraino sartzen dira, astiro baina tinko, eta gizateriaren aurrerapenarekiko lotura hautsezina sortzen dute.

Berpizkundera gizatasun berria ekartzeko gai izan zen bezala, Frantziako Iraultzak gizakia herritar aske izatera eraman zuen gisan, Europak XXI. mendeko demei erantzun behar die, ausardiaz eta era berritzailean. Ziurgabetasuna nagusi den garai honetan, Europa egoera hobezinean da, mundu osoan gizarte eta politika arloetan antolakuntza berria sustatzeko. Baina ez interesak soilik oinarri hartuta; batez ere balioak hartu behar ditu abiapuntu. Inoiz ez ziren batera gertatu, honen eremu geografiko txikian, honen gizarte eta ekonomia garapen, demokraziaren sendotze eta kultura aniztasun berezak, gaur egun Europar Batasunean gertatzen ari den eran. Lehenbiziko aldiz, europar kontinentean egia bihurtzen hasi da askotariko erlijioen, hizkuntzen, kulturen, erakundeen, ohituren eta tradizioen arteko bizikidetzatza tsua eta errespetuzkoa. Aniztasun hori, gaur egun, migrazio prozesuen ondorioz, benetan ere aparteko neurri iristen ari da. Balioetsi egin behar dugu hori, dinamismo faktore gisa, europar nortasuna aberasten eta indartzen lagunduko baitu.

EUROBASKek, 1951az geroztik, euskotarren kezka europazaleen elkargune gisa dihardu. Eta orain gizarteari dei egiten dio, Europa eraikitzearen aldeko herritar ardura berria eratzeko, horrela arrakastaz aurre egin ahal izango baitiegu mende berria ekartzen ari zaigun egoera eta eraldaketei. Oinarrizko eskubide guztiak errespetatuko dituen europar konstituzio ituna behar dugu; Europako gizarte zibilaria eta Europa askotariko eta anizkoitz hau eratzten duten herrialdeei —hala nola Euskadiri— benetako protagonismoa emango dien europar konstituzio ituna. XXI. mendearen hastapenetan, Europak bere historia guztiko dema liluragarrienetariko bat du aurrean: bizikidetzatza politikorako eredu berria eratzeta. Demokrazia forma berria behar dugu; ez ditzala egungo sistema politikoak elkarren ondoan jarri soilik, baizik eta haratago joan dadila, gizarte berri bat hartu eta garatu dezala, askatasuna, berdintasuna, parekotasuna, elkartasuna, gizarte justizia, aniztasuna eta garapen sostengagarria oinarri hartuta.

Parte har dezagun Europa berri horretan!

Guztiok gara beharrezko, Europar Batasuna bultzatzen,
demokratikoagoa
gizartekoagoa eta
aniztasunarekin eta ingurumenarekin begirunetsuagoa
izan dadin